

# PASAI SAN PEDRO:

Hondakinak biltzeko sistema berria.

**HERRITARREN FORMAIZORAKO, INFORMAZIRAKO ETA  
EKARPENAK JASOTZEKO PROZESUA, 2014**



## SAIOAREN AKTA

### **BILERAREN XEHETASUNAK/**

**Bilera zenbakia:** 1.

**Xede taldea:** Euskarazko taldea

**Data :** 2014-06-23

**Lekua:** San Pedroko Udal aretoan

**Hasiera ordua:** 19etan

**Amaiera ordua:** 21.05

### **PARTAIDETZARI BURUZKO DATUAK**

**MAHAIA:**

**Alkatea:** Amaia Agirregabiria

**Zinegotziak:** Jose Luis Sanz (San Pedroko alkateordea) eta Oihane Oronoz (Donibaneko alkateordea)

**Bileraren Dinamizazioa:** Larraitz Sarobe eta Susana Martinez (Aztiker Aholkularitza)

**Parte hartzaile kopurua** 30 pertsona (18 emakume eta 12 gizon)

## 1. ONGI ETORRIA ETA AURKEZPENA

---

Alkateak bertaratutakoei ongi-etorria egin die, prozesuaren zioa eta helburuak aipatuz, eta Udalaren izenean mahaian dauden kideak eta aholkularitza aurkeztu ditu.



## 2. PROZESUAREN ETA BILERAREN AURKEZPENA

---

Aztikerreko dinamizatzailleak prozesuaren aurkezpena egin du honako eskemaren arabera: helburuak, xede taldeak, bilerak eta metodologia azalduz. Era berean, gaurko saioaren aurkezpena eta eguneko bileraren helburuak, partaideak, egitura eta metodologia azaldu ditu. Bukatzeko, gaurko saioan elkar entzutea eta errespetua ahalbidetzeko jarraitu beharreko hainbat arau ere azaldu ditu.

Partaide batek galdetu du ea bileran herritarrek hitza hartu ahal izango duten. Dinamizazio arduradunak erantzun du baietz, bileraren bigarren zati osoa horretarako izango dela, eta dinamika baten bidez herritarrek hitza hartuko dutela ordena zehatzaren arabera.

## 3. SISTEMA EZARTZEARI BURUZKO INFORMAZIOA/

---

**Alkateak** eta **Donibaneko alkateordeak** sistema ezartzeari buruzko erabakia eta argudioak kokatu dituzte eta **San Pedroko alkateordeak**, San Pedrorako sistema berriaren ezaugarri tekniko nagusiak (frakzioak, gaiak, bilketa egutegiak, zintzilikarioak, lokalak, zurrunak, ordutegiak, hobekuntzak).

Hiru interbentzio horiek jarraian izan dira, eta honako eskemari erantzun nahi izan diote:

- ✓ Sistema berria noiz, nola eta zein irizpideen arabera erabaki zen.
- ✓ Sistema berria zer dela eta, eta zertarako ezarriko den.
- ✓ Sistema berriak praktikan dituen ezaugarri nagusiak.
- ✓ Sistema berriak San Pedron fisikoki, nola gauzatuko den.

Informazio eta azalpena amaituta, partaideen galdera-erantzunen txandara pasa da.

#### 4. HERRITARREN ZALANTZAK ETA KEZKAK KOKATZEA ETA LANTZEA

---

Herritarren zalantzak eta kezkek jaso dira, txanda irekiaren bidez. Horretarako, aurretik atzera, hurrenkeran, 5/6 galdera jaso dira, eta mahaiari pasa zaizkio erantzuteko. Mahaiak erantzunda, galderak jasotzen jarraitu da. Galdera hauek jaso eta hiru multzotan sailkatu dira:

- ✓ Zalantzak eta kezkek
- ✓ Ekarpinak eta proposamenak
- ✓ Iritziak

Ondoren alkateak eta zinegotziek izan dute galderei erantzuteko tartea. Jarraian, alkateak argitu ditu erabaki politikoari buruzko galderak eta zinegotziek berriz ezarpen prozesuari buruzko zalantzak eta kezkek.

Jarraian aurkezten den taulan ikusi ahal dira jaso diren balorazio eta iritziak, zalantza edo kezkek eta egin diren ekarpinak:

<b>BALORAZIOAK/IRITZIAK</b> <i>VALORACIONES/OPINIONES</i>
<ul style="list-style-type: none"><li>• Organikoa 5. edukiontzia izanez gero, zer gertatuko litzateke? Ez duzue frogatu, eta agian horrekin %70era iritsiko litzateke. Ez duzue aukerarik eman horretarako, eta herritarrak hori ongi betetzeko prest gaude.</li><li>• Sinadurak daude; gehiengo sozialak ez du nahi atez atekorik. Udalak ez du hori ez errespetatzen, ez kontuan hartzen. Ezker abertzaleak beti "herritarren iritziaz" egin du propaganda, eta orain ez du iritzia kontuan hartzen.</li><li>• Datuak eman dira mahaitik (atez ate / 5. edukiontzia): ezberdinak direla emaitzak eta 5. edukiontzia ez duela inoiz gainditu %50eko tasa azaltzen da.</li><li>• Sinadurak eta kontsulta eskaera ez dira Udalera iritsi. Alkateak gonbidatzen ditu horiek prozedura administratiboan sartzera.</li></ul>

ZALANTZAK/KEZKAK DUDAS/PREOCUPACIONES	
GALDERAK	ERANTZUNAK
Fardelak eta tokatzen dena (biak) jaistea posible izango da?	Fardelak eta tokatzen den hondakina, biak jaistea posiblea da. Fardelak plastikozko poltsa batean. Errefusaren egunean dena poltsa bakarrean jaistea posible da.
Arraina frijitu ondoren organikoa da?	Egin gabe= organikoa da. Frijitua ere, organikoa da. Sukaldeko papera olioarekin organikoa da paperak tinta badu, errefusa.
Etxe berrietan zintzilikarioak jarriko dira?	Udalak proposamen bat egingo du, komunitatean eztabaidatu ondoren, onartzen den edo ez erabaki beharko du. Bigarrenengo aukeraren kasuan Udalari proposamen berri bat egiteko aukera egongo da, beti ere baldintza minimo batzuk kontutan hartuz. Udalak komunitateari fitxa bidez adieraziko dio proposamena. Epe malgua izango da proposamena aztertu eta dagokion kasuetan komunitateak proposamen berria egiteko. Etxe berriek badituzte hondakinertarako gela zehatzak. Haiak aztertuko dira.
Bilketa sistema mota honen datu ekonomikoak (zenbateko kostua)? 5. kontainerraren aldeko sinadurak jaso ziren, aukera hau zergatik ez?	Hondakinak jasotzeko sistema hau %70era iristen da, 5. edukiontziaarekin %50era gehienez. Sinadurak ez dira udaletxeko idazkariarengana iritsi. Ez dira datu ekonomiko zehatzak aurkeztu pausoz-pauso joan nahi delako, behin sistema osoa jartzen denean behin betiko datuak emango dira. Udalak hondakinaren kudeaketa beregain hartzeak diru bat jasoko du eta diru hau herrira bueltatuko da. Ez da tasa igoerarik egongo (igoera egon zen gaur egungo sistemaren barruan).
Zein zurrunetan jarriko dira zintzilikarioak?	San Pedro kalean: zaharren egoitzaren alde batean eta 24-26 zenbakien artean
Giltzak aldi baterako edo permanenteak izango dira?	Lokala izanez gero, prestatuta egongo da ordu zehatz batzuetan irekita egoteko. Larrialdietarako bada, berriz, bulegoan eskatu eta ondoren bueltatu (malgutasun baten barruan).
Zergatik bi kubo etxean?	Bat jaisten denean bestea betetzen joateko.
Non egongo dira poltsa konpostagarriak?	Dendak informatuko dira, poltsak eduki ditzaten. Granelean (ontzian) zuzenean ere sar daitezke.
Noraino heltzen da San Pedro? Salinas San Pedro kontsideratzen da?	San Pedro kontsideratzen da: Salinas, Ricardo Arrillaga 1, Gran sol 6-8.
Material batzuk bi materialez eginak daude, nola egin kasu hauetan?	Bereiztea posible bada bereizi, oso itsatsita baldi badaude derrigorrez errefusara.
Zenbat kubo izango ditugu etxean?	2 kubo organikoarentzat eta errafiazko 3 poltsa (urdina, horia eta beltza).
Zergatik ukatu da galdeketa?	Osasuna jokoan jartzen duen gai baten inguruan galdeketa ez da egingo. Bi sistemen arteko

	galdeketa egin ez gero, maila berdinean egon beharko lirateke. Kasu honetan, proposatzen den beste sistema ez dago maila berean.
Zer gertatzen da nahastuz gero?	Ulegarria da nahastea. Oso deigarria bada, pegatina jartzen da gaizki egin dela adieraziz. Ikasketa prozesu bat dela argi dago.
Larunbatetan ez da jasoko? Ondo esplikatu.	Larunbat iluntzean ez da frakziorik jasotzen, orain arte bezala.
Konpostaje komunitarioa atzeratuko da nahiz eta komunitate guztia ados egon?	Konpostaje komunitarioaren gaia luzatu egin da. Komunitatea ados badago eta lursaila adostua badago, Udalarekin harremanetan jarri.
Dendetan ematen diren hondakin guztiak nola frenatu daitezke?	Europatik datorren legeetan oinarrituz, hori izango litzateke hurrengo erronka. Beste leku batzuetan tuperrak... banatzen dituzte berrerabilpena bultzatzeko.
Komun publikoa lokal bezala erabiltzea ideia txarra da, komunak desagertu egingo dira konpondu beharrean?	Komunak behin baina gehiagotan petardoekin lehertu dituzte. Hala ere, bi komun publiko daude tramu horretan.
Elkarte gastronomikoekin zer? Non bota? Komertzioekin bezala, beraiekin landuko da?	Komertzioekin egingo den bilerara elkarte gastronomikoak ere deituko dira. Bazkide guztiak informatu behar dira, elkartearen lokaletan era garbi batean ikusteko udalean pegatinak eskura daitezke. Beste herri batera joateko aukera ere egongo litzateke nahi izanez gero, bertako elkarte gastronomikoetan nola antolatzen diren ikusteko.
Zein epetan? Noiztik aurrera?	Aurten izango da. Aldez aurretik, denborarekin, abisatuko da zehazki noiz izango den.
Ikastetxeekin ere bileraren bat egingo da? Informazio bulegoa non?	Ikastetxeekin biltzea aurreikusten da. Informazio bulegoa printzipioz udal aretoan izango da.
Zintzilikarioak non jarriko dira?	Udalak proposamen bat egingo du, komunitatean eztabaidatu ondoren, onartzen den edo ez erabaki beharko du. Bigarren aukeraren kasuan Udalarik beste proposamen bat egiteko aukera egongo da, betiere baldintza minimo batzuk kontutan hartuz. Udalak komunitateari fitxa bidez adieraziko dio proposamena. Epe malgua izango da proposamena aztertu eta dagokion kasuetan komunitateak proposamen berria egiteko. Zintzilikariak jarri ondoren ere proposamen berriak udalak jaso ditzake eta aztertu ondoren, posible den kasuetan aldaketa egingo litzateke.
Plastikoa, beira eta beiren ontziak ondo funtzionatzen badu, agian kubo marroiarekin nahiko izango litzateke?	Power pointeko diagraman ikusi da hondakinak jasotzeko sistema berriarekin aipatutako ontzien birziklapen ehunekoa igo egiten dela.
Beste lekuetatik ekartzen den zaborra zenbat den badakigu? Zerbait egin hau kontrolatzeko.	Zabor turismoaren ehunekoa oso baxua da. Agian gehiegizkoa da esaten dena.
Kalean dauden zaborrontziak ez jaistea. Zergatik ez da daudenak moldatuta jartzen?	Egia da gutxiago daudela. Beharraren eta eskaeren arabera gehiago jartzea posible izango litzateke.
Paperaren ontzia komunitarioa jartzen bada, alde zaharrean	Paperaren egunean zintzilikarioetara hurbiltzea izango litzateke aukera bat. Hala ere, adostuko

kamioia barruraino sartuko da?	litzateke aurretik.
Olioia jasotzeko puntuak egoten jarraituko du?	Bai jarraituko du eta San Markoseko kamioia orain arte bezala pasako da: hilabeteko lehenengo asteartean goizez eta hirugarrenengo asteartean gauez.
Zergatik ez gaituzte entzun?	Osasuna jokoan jartzen duen gai baten inguruan galdeketa ez da egingo. Bi sistemen arteko galdeketa eginez gero, maila berean egon beharko lirateke. Kasu honetan proposatzen den beste sistema ez dago maila berdinean.
Gida banatuko da?	Bai banatuko dira.




**EKARPENAK/PROPOSAMENAK**  
*APORTACIONES/PROPUESTAS*

Zehatz-mehatz esplikatzeari eskatzen da: hasi aurretik etxe guztietara informazio argia eta garbia ematea.

## 5. BILERAREN BALORAZIOA/

---

Partaideei bilera baloratzea eskatu zaie. Librea ote den galdetu du hainbatek, eta erantzun da baietz, nahi duenak soilik egin dezakeela balorazioa. Jarraian azaltzen da jasotako balorazioa.

	<b>Bilerako giroa</b> <i>Ambiente de la sesión</i>	<b>Erabilitako metodologia</b> <i>Modo de trabajo</i>	<b>Landutako edukia</b> <i>Contenidos creados</i>
	XXXXXXXX	XXXXXX	XXXXX
	X	XX	XXX
			

**Bilera bukatutzat eman da Pasai San Pedron, 2014ko ekainaren 16an, gaueko 21.05etan.**

### **HURRENGO HITZORDUAK:**

#### GAZTELERAZKO BILERA

- **DATA:** ekainaren 17an
- **LEKUA:** Udal aretoa
- **ORDUA:** 19etan

***Mila esker guztioi zuen ekarpenengatik!***

